

ARAUDIA

REGLAMENTO

- Eguna eta ibilbidea:** Martxa hau 2013ko maiatzaren 4an (larunbata) ospatuko da. Ibilbide bakarra du, 45 km eta 2350 m gainbeherarekin. Ibilbideak Oartzun ibaiak eta bere errekek osatzen duten arroari bira ematen dio.
- Lekua eta ordua:** Erreterriako Juan de Olazabal 23 kaleko egoitzan hasi eta amaitzen da. Irteera goizeko 7:00retan izango da izena eman duten guztiontzat.
- Kontrol postuak:** Ibilbidean zehar pasa beharreko kontrol puntu hauek ezarri dira, gutxieneko eta gehieneko ordutegi hauekin:

Kontrola	Km	Gutxien. ordua	Gehien. ordua
Irteera	0	7:00	7:00
Aldura	11,3	8:55	9:50
Uzpuru	16,0	9:40	11:00
Aritxulegi	23,0	10:50	12:45
Gurutze	33,1	12:30	15:40
Jaizkibel	38,9	13:30	17:50
Amaiera	45,0	14:30	19:30

- Jan-edan postuak:** 4 anoa postu egongo dira: Uzpuru, Artxulegi, Gurutze eta Jaizkibelgo kontrol postuetan, baita amaiera puntuan.
- Izen ematea:** apirilak 15etik maitzak 2ra EMF-ak sorturiko www.zirkuitua.com web gunearen bitartez egingo da. Epe hori amaiturik, egunean bertan irteera puntuan izena eman ahal izango da.
- Ordainketa:** Izen ematearen prezioa 5€ da. Kreditu txartelarekin, edo bestela elkartearen 2 kontuetako batean sartuz egin daiteke: **Kutxabank 2095-5064-81-1061054614; CLP 3035-0011-25-0110061096** (kasu honetan izenak edo dortsalak adierazi eta martxaren egunean ordain-agiria ekarri).
- Klasifikatutzat emango dira ibilaldia amaitu eta kontrol puntu guztietatik ezarritako ordutegien artean igarotzen diren parte hartzaile guztiak.
- Antolatzaileek ez dute bere gain hartzen ibilaldian edo bere eraginez gerta daitezkeen istripu edo edonolako onduoriorik.
- Hemen agertzen ez den edozein arazori buruzko erabakia antolatzaileek hartuko dute.

- Rekorrido y día:** Esta marcha se celebrará el sábado 4 de mayo de 2013. Hay un único recorrido, de 45 kms de distancia y 2350 ms de desnivel, que consiste en recorrer el perímetro de la cuenca del río Oartzun.
- Lugar y hora:** El recorrido comienza y termina en el local social, C/ Juan de Olazabal 23 de Erreterria. La salida se dará a las 7:00 para todos los participantes inscritos.
- Controles:** el recorrido tiene establecidos los siguientes controles, puntos de paso obligatorios, con los siguientes horarios máximos y mínimos:

Control	Kms	Hora mínima	Hora máxima
Salida	0	7:00	7:00
Aldura	11,3	8:55	9:50
Uzpuru	16,0	9:40	11:00
Aritxulegi	23,0	10:50	12:45
Gurutze	33,1	12:30	15:40
Jaizkibel	38,9	13:30	17:50
Llegada	45,0	14:30	19:30

- Avituallamiento:** se dispondrán 4 puntos de avituallamiento sólido y líquido, en los controles de Uzpuru, Artxulegi, Gurutze y Jaizkibel, además de en la llegada.
- Inscripciones:** del 15 de abril al 2 de mayo se realizarán en la web www.zirkuitua.com, que a tal efecto ha dispuesto la EMF. Terminado ese plazo, las inscripciones se harán únicamente el día de la marcha en el punto de salida.
- Precio y pago:** El precio de inscripción es de 5€. Se puede pagar con tarjeta de crédito o ingresando en una de estas 2 cuentas del club: **Kutxabank 2095-5064-81-1061054614; CLP 3035-0011-25-0110061096** (en este caso indicar nombres o nº de dorsal, y traer el justificante de pago el día de la marcha).
- Se considerarán clasificados todos aquellos participantes que terminen la prueba, habiendo pasado por todos los controles, dentro de los horarios establecidos.
- La organización no se hace responsable de cualquier accidente ocurrido durante la marcha o por consecuencia de ella.
- Todas las circunstancias no previstas en el presente reglamento serán resueltas según el criterio de la comisión organizadora.



URDABURU

MENDIZALE ELKARTEA

ERRETERIA

Juan de Olazabal, 23

www.urdaburu.org

Tlf: 943 52 78 79

email: urdaburumendizale@euskaltel.net

XX OIARTZUN IBAIAREN ARROARI BIRA

VUELTA A LA CUENCA DEL RIO OIARTZUN

Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien 12. Zirkuituaren barne
Incluida en el 12º Circuito de Marchas de Largo Recorrido de Euskal Herria

45 km - 2350 m

Erreterria - San Marcos - Listorreta - Aldura▲ - Zaria▲ - Bunaniarri▲ - Bianditz lepoa - Errenga▲ - Artxulegi - Elurretze - Gurutze - Gaintxurizketa - Jaizkibel - Lezo - Erreterria

2013

EGUNA

4

MAIATZA

ORDUA

7:00

DIA

4

MAYO

HORA

7:00





XX. OIARTZUN IBAIAREN ARROARI BIRA

2013 - V - 4

XX-VUELTA A LA CUENCA DEL RIO OIARTZUN

45 km - 2350m





COMO LLEGAR A ERRETERIA

Insistir que los sábados hay OTA de 9:30 a 13:30 y que eso hará imposible aparcar a menos de 700m de local. Por tanto el parking reservado para la ocasión (gratuito ese día) será la única opción. Está a 450m del local social de Urdaburu.M.E.

PARKING DEL BARRIO PONTIKA

El parking se sitúa en el barrio periférico de Pontika, en un solar rodeado por las calles Arramendi, José Miguel Barandiaran y Pontika. Su entrada es por un callejón paralelo a la **calle Pontika**.

Si no conocéis Erretereria, llegar aquí puede resultar confuso, toda vez que las principales carreteras (A8, Gi-20, N1) y entradas, implican atravesar todo el pueblo sin una señalización de referencia. Por tanto, para los que vengáis de lejos (sin GPS) el acceso más recomendable (por su sencillez y clara señalización) es por la vieja **carretera de Astigarraga**, que entra precisamente por el barrio Pontika, viendo inmediatamente el parking. Una 2ª opción no tan mala (si se viene por la Gi-20, o desde Irun) sería entrar **por el barrio de Beraun**.

1a) DE A 15, A8, N1 HACIA ASTIGARRAGA

Viniendo desde Bizkaia y Zarautz por la A8, en el nudo de Aritzeta mantenemos la (nueva) A8 en dirección Irun (no tomar la vieja variante de Donostia, hoy Gi-20) hasta la salida que indica "Astigarraga".

Si en cambio venimos por la A15 o N1, por Andoain, hay 2 opciones. La 1ª es coger en Andoain la A15 en dirección a Hernani, hasta la salida a Astigarraga. La 2ª es tomar en Lasarte la A8 en dirección a Irun (no la Gi-20 o vieja variante de Donostia), hasta la salida que indique a Astigarraga.

1b) ASTIGARRAGA > OIARTZUN > ERRETERIA > Parking PONTIKA

En ambos casos, desde la A15 o desde la A8, tomaremos la salida a Astigarraga (no seguir la A8 hacia "Erretereria") y desembocaremos a una 1ª rotonda, donde tomaremos dirección "Astigarraga". En la 2ª rotonda tomamos ya siempre dirección "Oiartzun". Tras 4 km, en lo alto de un pequeño puerto, nos salimos en dirección "Erretereria" (hay pintadas que sustituyen "Erretereria" por "Orereta", que viene a ser lo mismo). Y ahora se trata de seguir 3 km siempre de frente, hacia "centro ciudad" o hacia "Erretereria". En 1 km pasamos el barrio rural de Zamalbide y 2 km después (tras una bajada del 15%) cruzamos 2 rotondas en una zona entre polígonos. Nada más pasar bajo el viaducto de la autopista, llegamos a la 3ª rotonda, donde comienza la zona urbana y los rascacielos del barrio Pontika. Aquí tomaremos de frente hacia "centro ciudad" por la calle Arramendi. Inmediatamente queda a nuestra izquierda el solar de nuestro parking, que lo iremos rodeando, girando en las 2 rotondas a la izquierda y entrando al callejón del parking.

2) ENTRADA POR Gi-20 Y BERAUN

Si venimos por la autopista Gi-20 desde Donostia (vieja variante de Donostia) tomamos la 1ª salida "Erretereria-Pasaia" y en la gran rotonda giramos a la dcha, subiendo en dirección "Beraun".

Si en cambio venimos por la A8, tanto desde Irun como desde Astigarraga, en el nudo de Oiartzun tomaremos la autopista Gi-20 hacia "Erretereria-Pasaia". La salida "Erretereria-Pasaia" desemboca en la misma gran rotonda, al que le damos la vuelta completa, para subir en dirección a "Beraun".

En ambos casos, subiremos hacia "Beraun" en gran pendiente (ojo de no meternos en la A8) hasta lo más alto, hasta la minirrotonda que da entrada al barrio Beraun. A partir de ahora seguimos siempre hacia "centro ciudad". Tras 1 km de bajada, ya abajo del todo, llegamos a la mencionada rotonda de entrada a Pontika. Giramos a izda hacia "centro ciudad" tomando la calle Arramendi. Inmediatamente queda a nuestra izquierda el solar de nuestro parking, que lo iremos rodeando, girando en las 2 rotondas a la izquierda y entrando al callejón del parking.

PARKING PONTIKA - LOCAL DE URDABURU (punto de salida)

El local queda a 450m del parking. Pero como la marcha pasa muy cerca de aquí, podremos seguir su señalización (en dirección contraria) hasta el local. Desde la rotonda junto al parking, tomaremos la empinada calle ascendente Miguel Zabaleta durante 50m hasta el edificio del euskaltegi. Aquí torceremos a la derecha por el bidegorri (el de la marcha), que lleva por un pequeño túnel hasta una plaza. Cruzamos la pasarela sobre las vías del tren y bajamos unas escaleras. Y finalmente rodeamos el rascacielos izquierdo por su izquiezda, bajo el cual qqueda el local social (C/Juan de Olazabal 23), a mitad de unas escaleras.

OIARTZUN IBAIAREN ARROARI BIRA - ibilbidea pausuz-pausu

ERRETERIA-SAN MARCOS-ERRETERIAKO BENTA-LISTORRETA-IDOIA-ALDURA (K1)

Irteera puntua **Erreterriako (10)** Juan de Olazabal 23 kaleko gure egoitza da. Kaputxinoen elizaren eskuinetik, eskailera batzuez trenbide gaineko zubia pasa eta bidegorri batez (trenbide zahar bat) Pontika auzo gainetik igaroko gara. Ondoren, Beraun kaletik gora ezker aldeko parketik joko dugu autopista azpiko pasabidera. Bidea errepidetxora irtetean eskuineruntz (W) hartuko dugu, Langaitz ikastolarraino (80). Hemendik aurrera Listorretarako PR-a zenbait unetan lagun izango dugu. Birilbilgunean San Marcoserako errepidea hartuko dugu eta 50 m ondoren ezkereruntz (SW) igotzen den zementuzko pista. Depósito bat baino metro gutxi lehenago, eskuineko zidorrak zelaia igaro eta lepotxo batetara (109) helduko gara. Hemendik San Marcos mendirako biderik zuzenena hartuko dugu. Honela, 2 bide ezkerretan utziz (baita PR-a) etxe zahar baten arrastoetatik gorantz abiatzen den zidor nabarmenari ekingo diogu. Iturri baten eskuinetik eta zidor zuzenenetik mendiari bira osoa ematen dion pista aterako gara (195). Eskuinetik saihestuz **Artxipi (216) lepo**ra helduko gara. PRarekin bateginik, Errepidetxoan bidegurutzeara aurrera (S) joko dugu, aldapa labur eta gogorraz. 100m ondoren, ezkereruntz doan PR zidorrak Txoritokia mendia saihestuko dugu Floreagaberri (245) etxeraino. Bere zementuzko pistaz errepidera jaitsi eta eskuinetara hartuko dugu **Erreterriako Benta (140)** hurbilera. Perurena tabernaren ezkerretik abiatzen den errepidez 3 km-tan **Listorreta (190)** atsedengunera helduko gara. Errepidea km erdi ondoren amaitzen da **Barrengo Loian (200)**. Zementuzko pistaren eskuin alboko zidorrak (PR) pistaren 3 zati laburtuko ditugu. Eta pisten bidegurutzeara (2ek leku berera daramate) ezkerrekotik joko dugu **Idoia (333)** izeneko lepo eta tabernara **(iturria)**. Aldura mendira (aukera asko daude) biderik zuzenenetik igoko gara. PR-a utzirik (Aldurako bira), zidorretatik gora (NW) beti kordal linea mantenduko dugu, 2. bide horizontalera (450) aterata. Hemen 50m ezkerretara eginez aldapa gogor-gogorari ekingo diogu, zidortxo ahul batetik gora. Goikalderra heltzean (500) zelaian gora (E) jarraituko dugu **Aldura tontorrera (544)**. Hemen dugu lehen kontrola (jan-edanik gabekoa).

ALDURA-IRURITA-ZARIA-UZPURU (K2)

SE-runtz jarraituz eta beti kordal zabaleko bidez **Pertsele (529)** kotara helduko gara. Erpin geodesikotik S norabidean eta suebakiz pista (450) jaitsiko gara, GR-121ekin bateginaz. Ezkerretara hartu eta 300 m aurrerago, bira itxi batetan (400) zidor batez laburtuko dugu **Ezpalaurgi (385)** lepo eta txabolara. GR pistatik 442 koto eskuinetik saihestuko dugu **Irubideta (329)** lepora (pista askoren bidegurutzeara). Lepo amaieran suebakitik gora egingo dugu, gero eta aldapatsuagoa (GR-a aldenduko zaigu une batez). Zartzak hasten diren unean (470) kordalaren eskuin edo ezker aldeko zidorretatik ekidingo ditugu, pista eta zabalgun bat igaro arte. Berrero suebakitik gora krestara (555) irtengo gara eta definitiboki GR-121ekin bat egingo dugu (13 km-tan zehar). Orain S norabidean, krestaren belar suebakiaz, bistan dugun **Zaria (630)** tontorrera helduko gara. Eta zelaian behera, kordal zabaletik, **Uzpuru (565)** lepora. Bertatik igarotzen da errepidea eta bertan izango dugu 2.kontrola, baita jan-edan postua.

UZPURU-BUNANIARRI-BIANDITZ-ERRENGA-ARITXULEGI (K3)

Orain betiere belarrezko kordal zabala jarraituko dugu denbora luzez, GR-121etik. Bi lomatxo eta lepo igaro ondoren, igoera luzeago batek **Bunaniarri (774)** tontorrera darama. kresta estu eta bitxiaren ostean, **Gorgorren Dorrea (773)** kotatik **Bianditz lepora (700)** jaitsiko gara. Errepidea igaroz berriz loma zabala gora 785 koto igoko dugu. Piskanaka kordal linea argituz doa eta gure eskuinetan Gipuzkoa eta Nafarroa mugatzen dituen alanbrada agertuko da (denbora luzez jarraituko duguna). **Irumugarrieta (830)** koto xumean banatzen dira kordalak eta alanbradak. Hemen kanadiar pasoa igaro gabe, ezkereruntz (N) jaitsiko gara leporaino (718). Hortik gutxira, unetxo batez pista eta GR-a utziko ditugu, alanbradatik gora **Errenga (794)** tontorrera heltzeko. Alanbrada albotik lehen utzitako pista (650) jaitsiko gara eta bertatik **Aritxulegi (485)** lepora. Hemengo txabolan kokatzen da 3. kontrola (jan-edanarekin), baita **iturri** bat ere.

ARITXULEGI-ELURRETXE-GURUTZE (K4)

Betiere GR-a jarraiki, lepoa igaro eta harrizko bidez igoko gara poste adierazle bat dagoen bidegurutze eta zabalgunera (575). Hemendik aurrera, zidor estu eta bitxiak, gorakada eta beherakadak tartekatuz, 3,5 km-tan zehar, Aiako Harriaren ekialdeko hegia zeharkatuko dugu **Elurretxe (500)** leporaino. Hemen GR-121 utzi eta GR-T2 jarraituko dugu, baita PR bat. Honela, errepidea zeharkatuz ezkerreko (NW) joko dugu, errepide gainetik paraleloki doan zidor batez. Hurrengo lepoan (462) zelaia igaro eta gorako zidorrak (W) Muganiz (503) koto zertxobait eskuinerago uzten du. Alanbrada ondotik errepidera jaitsi eta 300 metrotan zehar jarraituko dugu, ondoren bere bihurtuneak laburtzeko (SW). Lehen laburbidean GR-a eta PR-a banatzen dira (PR-tik joko dugu, eskuinerago doalarik). Honela belar pasiloetatik behera, errepidea igaro, bihurtune bat ezkerretan utzi eta **Bostbideta (362)** lepora helduko gara. Errepidera irten gabe, PR zidorrak 2 koto eskuinetik saihestuko ditugu. Gero zementuzko pista jarraitu eta errepidera irten gabe eskuineko pistatik (NW) okertuko gara, bistan dugun baserrira. Orain zidor batek 339 lepo hurbilera eramango gaitu eta 2 alanbrada gurutzatuz, eskuin hegitik beheruntz doa, errepideko bihurtune itxi batetara (295). Hurbileko baserrian pista bat hartuko dugu (NW) beste baserri batetara. Ondoren bide zahar bihurtzen da eta basotik behera doa zementuzko pista batetara irten arte (176). Eskuineruntz hartu eta beti pista nagusienaz (NW) **Gurutze (165)** auzora helduko gara. Bertan kokatzen da 3. kontrola (jan-edanarekin). Frontoiaren alboan **iturri** bat dugu. **Taberna** bat ere badago.

GURUTZE-GAINTXURIZKETA-JAIZKIBEL (K5)

Errepidea ebitatzeko asmoz, zementuzko pistaz (NE) igoko gara etxe batetara, eta bere azpitik doan bidetik jarraituko dugu 150 metro. Basora sartzen den unean bidea utziko dugu (buelta haundi bat laburtzeko). Honela alanbrada pasa eta zidor zikin samarretatik pisten bidegurutzera jaitsiko gara, ezkerretara jaisten den zementuzkoa hartuz. Berehala A8 autopista gaineko zubira helduko gara. Gero hotel baten albotik igaroko gara eta ondoren etxe multzo baten artetik (hemengoek martxa egunean sarritan markak kentzen dizkigute). Beti zementuzko pista nagusiz eta aurreruntz (NE), ezkereruntz jaisten den pista bat utzi eta berehala Erain ikastolara helduko gara. Bere errepidez **Gaintxurizketa (85)** gainera jaitsiko gara. Errepidea modu seguruan gaingituz, paraleloki eskuineruntz (NW) jaisten den pista bat hartuko dugu, gero errepide azpitik (60) igarotzen dena. Igara ondoren 2 bira ditugu jarraian, eskuin eta ezkerreko, eta pista aldapatsu batek zementuzko pista nagusira (125) igoko gaitu. Beti zementuzko pista nagusitik gora joko dugu (erdikoa eta aldapatsuena). Azken etxearen gainean, zementua pista bihurtzen den lekuan (185), N-runtz doan zidor batetik zuzen gora atajatu dugu. Pisten bidegurutze batetara irtengo gara (215) eta eskuineruntz doan pista gorakorra hartuko dugu (NE). Km erdi baten ostean pista utzi (245) eta igoera oso bortitz bati ekingo diogu, alanbrada albotik gero eta aldapatsuago bihurtzen den suebakitik gora. Tximini txiki bat gaingitu ondoren (480) zidortxoak diagonalki eskuineruntz egiten du, krestara irteteko giltzarria den haizt pasoa edo eskalo txiki batetara. Honela krestara irtengo gara **Jaizkibelgo antenaren (525)** hesiaren alboan. 5. kontrola (jan-edanarekin) 30m eskuinetara kokaturik dago, harrizko balkoi artifizial batetan. (Lekua den bezala despisteak egon ohi dira, lainoarekin eta laino gabe). (Eguraldi txarra balego kontrol postua hesiaren bestekaldean kokatu liteke).

JAIZKIBEL-LEZO-ERRETERIA

Etorri garen lekutik abiatuz Jaizkibelgo kordalek doan zidor nabarmena jarraituko dugu (orain GR-121), 3. eta 2.dorretik igaro eta azken honen azpian dagoen **leporaino (319)**. Bertan kresta eta GR-a utziko dugu. Orain Santiagoko bidearen posteak jarraiki, ezker atzera doan pista hartuko dugu eta berehala eskuinera jaisten den bidea. Hemendik aurrera hamaika bide eta aukera daude, baina jaisten den guztia Lezora doa. Gu betiere diagonalki eskuinerantz jaitsiko gara (SW). Honela pista horiozontal bat gurutzatuko dugu (200). Ondorengo bidegurutze anitz batetan (170) Santiagoko bidea utzi eta eskuin aldera jaitsiko gara (W). Orain zidor estuagoa denak nabarmen beheruntz egiten du. Gero pista bat zeharkatu eta azkenik altuera mantentzen du, bide zabalagoan sartu arte (92). Honek depósito batetara darama (85). Bere pistaz **Lezora (20)** jaitsiko gara. Errepidea gurutzatuz herria bere eskuinetik saihestuko dugu, portu aldera begiratzen duen kanpokaldeko kaletik. Lezoko irteeran biribilgunearen excalestrica azpiko paso batez zeharkatuko dugu, eta ondoren zebrabideetatik. 100m aurrerago eskuineruntz jaisten diren eskaileretatik **Erreterriara (5)** helduko gara, Oiarzun ibaiaren gaineko egurrezko zubitik. Gune urbanoa gehienbat aurreruntz (S) igaroko dugu. Honela Hondarribia, Diputazio plaza eta Francisco Gaskue kaleetatik Biteri kalean sartuko gara. Ezkereruntz jo eta berehala eskuineruntz Juan de Olazabal kalea hartuko dugu, gure egoitza amaituz (10).

VUELTA A LA CUENCA DEL RIO OIARTZUN - recorrido paso a paso

ERRETERIA-SAN MARCOS-ERRETERIAKO BENTA-LISTORRETA-IDOIA-ALDURA (K1)

Salimos de nuestro local social, en la calle Juan de Olazabal 23 de [Erreteria \(10\)](#). Dejando la iglesia de los Capuchinos a la izda, subimos por unas escaleras al puente sobre las vías del topo y tomamos un bidegorri (una antigua vía férrea) que discurre sobre el barrio de Pontika. Ascendiendo luego por la calle Beraun, nos dirigimos por una zona ajardinada al paso bajo la autopista. El camino asciende a una carretera que tomamos a la dcha (W) hasta la ikastola Langaiz (80). Aquí coincidimos con el PR de Listorreta, que seguiremos en algunos tramos. Tras la rotonda, seguimos la carretera de San Marcos durante 50 m y torcemos a la izda (SW) por una pista cementada. Justo antes de un depósito, bajamos a la dcha (SE) por una la senda, que cruza una campa y alcanza el collado (109). Aquí optamos por la subida más directa al monte San Marcos. Así, dejamos el PR y 2 caminos a la izda, para dirigimos a las ruinas de una casa, donde arranca la pisada senda de subida. Dejando una fuente a la izda la senda más directa desemboca en la pista (195) que circunda el monte. Lo bordearemos por su dcha hasta el [collado de Artxipi \(216\)](#). En el cruce de pequeñas carreteras, coincidimos de nuevo con el PR y subimos de frente (S) una corta rampa. 100 m después torcemos a la izda (S) por la senda PR que flanquea bajo el monte Txoritokieta. Desde la casa Floreagaberri (245) la pista cementada baja en zigzag a la carretera, que tomamos a la dcha (S) hasta la cercana [Erreterriako Benta \(140\)](#). Por la izda del bar Perurena arranca (S) la carretera que seguiremos durante 3 km hasta el área recreativa de [Listorreta \(190\)](#) y medio km más hasta su final en [Barrengo Loia \(200\)](#). Justo a la dcha de la pista cementada, tomamos la senda (PR) que permite atajar 3 tramos. Y luego, en el cruce de pistas (ambos llevan al mismo lugar) optamos por el ramal izda, llegando así al collado y bar [Idoia \(333\)](#) ([fuente](#)). Entre las muchas sendas y opciones, optaremos por la subida más directa al monte Aldura. Dejando el PR (vuelta a Aldura) subimos (NW) por sendas por la línea de cordal. Al alcanzar el 2º camino horizontal (450), torcemos 50m a la izda para poder atacar el empinado senderillo que gana la zona alta (500). Ya por hierba continuamos (E) hasta la [cima de Aldura \(544\)](#), 1º control de paso (sin avituallamiento).

ALDURA-IRURITA-ZARIA-UZPURU (K2)

Seguimos al SE, y después por el camino del ancho cordal, hasta la siguiente [cota de Pertsele \(529\)](#). Desde el geodésico, bajamos por un cortafuegos en dirección S hasta la pista (450), donde se nos une el GR-121. Tomando a la izda bajamos 300m hasta una cerrada curva (400), donde atajamos por senda hasta el [collado y txabola de Ezpalaurgi \(385\)](#). Por la pista del GR, bordeamos descendentemente la cota 442 hasta el siguiente [collado de Irubideta \(329\)](#), cruce de muchas pistas. Al final del collado, ascendemos (E) un cortafuegos cada vez más empinado (el GR se aparta en este tramo). Cuando comienzan las zarzas (470) las evitamos fácilmente por senderillos a su izda o dcha, hasta cruzar un rellano y pista (485). Retomamos el ahora limpio cortafuegos hasta salir a la cresta (555) y enlazar definitivamente con el GR 121 (nos acompañará durante 13 kms). Por la línea de cresta y su herboso cortafuegos, subimos (S) a la ya visible [cima de Zaria \(630\)](#). Por una despejada pradera bajamos al [collado de Uzpuru \(565\)](#), donde pasa la carretera y se sitúa el 2º control de paso (con avituallamiento).

UZPURU-BUNANIARRI-BIANDITZ-ERRENGA-ARITXULEGI (K3)

Ahora viene una larga zona donde todo consiste en seguir el ancho y despejado cordal, siempre por el GR 121. Tras 2 pequeñas lomas y collados, una subida más prolongada nos lleva a la [cima de Bunaniarri \(774\)](#). Una estrecha y bonita cresta conduce a la siguiente [cota de Gorgorren Dorrea \(773\)](#), cayendo al [collado de Bianditz \(700\)](#). Cruzamos la carretera y remontando la ladera hasta la cota 795. Poco a poco la línea de cordal se aclara y aparece a nuestra dcha la alambrada que limita Gipuzkoa y Nafarroa, que ahora seguiremos en todo momento. En la discreta [cota de Irumugarrieta \(830\)](#) se produce el cruce de cordales y alambradas. Aquí, sin cruzar el paso canadiense, bajamos a mano izda (N) hasta el collado (718). Poco después, dejamos (momentaneamente) la pista y el GR, para subir por la alambrada a la [cima de Errenga \(794\)](#). Junto a la alambrada caemos de nuevo a la pista (650) y bajamos por ella al [collado de Aritxulegi \(485\)](#), en cuya txabola y [fuente](#) se sitúa el 3º control de paso (con avituallamiento).

ARITXULEGI-ELURRETXE-GURUTZE (K4)

Siempre por el GR, cruzamos el collado y subimos por un empedrado camino hasta un rellano y cruce (575), con poste indicador. Seguimos siempre de frente por una serpenteante senda, que con continuas subidas y bajadas recorre en 3,5 km el flanco W de Aiako Harria hasta el [collado de Elurretxe \(500\)](#). Aquí abandonamos el GR 121 y seguiremos por el GR T2 y un PR. En Elurretxe cruzamos la carretera, tomando a la izda (NW) la senda que que discurre paralela sobre su talud. En el siguiente collado (462) cruzamos la campa y subimos de frente (W) por una senda hacia la cota Mugalix (503), que dejaremos ligeramente a la dcha. Bajamos junto a la alambrada a la carretera y la seguimos durante 300 m, para luego bajar a mano izda (SW) atajando sus continuas curvas. En el 1º tramo de atajo se bifurcan el GR y PR, debiendo tomar el PR, que va más a la dcha. Por rodadas cruzamos la carretera, y luego dejamos una curva a la izda, para después caer al [collado de Bostbideta \(362\)](#). Sin salir a la carretera, la senda PR bordea 2 cotas por la dcha y luego, en un breve tramo cementado, giramos por una pista a la dcha (NW), que termina en un visible caserío. Ahora una senda alcanza el evidente colladito (339) y cruzando un par de alambradas flanquea descendentemente hasta una cerrada curva de la carretera (295). En el cercano caserío torcemos por una pista (NW) a otro caserío. Se vuelve en viejo camino y baja por el bosque hasta una pista cementada (176). Girando a la dcha la pista principal se dirige al NW al [barrio de Gurutze \(165\)](#), donde se sitúa el 3ª control (con avituallamiento). Hay [fuente](#) junto al frontón. Hay también [un bar](#).

GURUTZE-GAINTXURIZKETA-JAIZKIBEL (K5)

A fin de evitar la carretera, subimos por una pista cementada (NE) hasta una casa, y proseguimos bajo ella por un viejo camino durante 150m, abandonándola justo en la entrada al bosque (para evitar un gran rodeo). Cruzamos la floja alambrada y por senderillos algo sucios hacemos un breve atajo-apaño, hasta caer a un cruce de pistas y tomar la cementada a la izda. **Siempre por esta pista principal**, cruzamos un puente sobre la autopista A8 y pasamos junto a un hotel, y poco después junto a unas cuantas casas (que suelen quitar las marcas el día de esta marcha). **Seguimos siempre de frente (NE) y nada más dejar una pista cementada que baja a la izda, pasamos junto a la ikastola Erain y bajamos por su carretera al [alto de Gaintxurizketa \(85\)](#)**. Giramos por una pista descendente a la dcha (NW) que permite cruzar bajo la carretera (60). Tras 2 sucesivos giros, a dcha e izda, subimos hasta la pista cementada principal (125) y seguimos siempre por el ramal más central y ascendente. Justo donde se vuelve pista (185), atajamos (N) por una senda hasta un cruce de pistas (215) y tomamos la más ascendente a mano dcha (NE). Tras medio km abandonamos la pista (245) y afrontamos una **fortísima subida por un cortafuegos** junto a una alambrada, cada vez más empinado. Tras trepar una sencilla chimenea (480) el senderillo asciende en diagonal a la dcha hasta el paso rocoso que mediante una trepadita alcanza la cresta, junto al vallado de una de las [antenas de Jaizkibel \(525\)](#). El 5º control de paso (con avituallamiento) se sitúa 30m a la dcha, en un **balcón artificial** (en caso de mal tiempo se podría trasladar al lado opuesto de la valla).

JAIZKIBEL-LEZO-ERRETERIA

Volviendo unos metros sobre nuestros pasos, seguiremos siempre la pisada senda del cordal (ahora GR 121) que pasa por el 3º torreón y después por el 2º, cayendo al cercano [collado \(319\)](#), donde abandonamos la cresta (y el GR). Ahora por un Camino de Santiago, retrocedemos unos metros a mano izda y bajamos inmediatamente por un camino a la dcha. A partir de aquí hay muchas sendas y opciones, pero todo lo que baja lleva a Lezo. Nosotros bajamos siempre en diagonal a la dcha (SW) y cruzamos una pista (220). En un importante cruce múltiple (170), dejamos el Jacobeo y giramos ligeramente a la dcha (W). La senda, ahora más estrecha, baja decididamente, cruza una pista y flanquea hasta entrar en un camino más ancho (92), que lleva a un depósito (85). Por su pista bajamos a [Lezo \(20\)](#) y cruzamos la carretera, para bordear el pueblo (por la dcha) por la calle que asoma al puerto. A su salida, cruzamos el excalestic de la rotonda por un paso inferior y sucesivos pasos de cebrá. Tras 100 m, bajamos unas escaleras a la dcha y llegamos a [Erreteria \(5\)](#) por el **punto peatonal** sobre el río Oiartzun. El tramo urbano lo recorreremos básicamente de frente (S). Así, por las calles Hondarribia, Pl. Diputación y Francisco Gazkue desembocamos en Viteri, donde giramos a la izda y seguidamente enfilamos a la dcha por Juan de Olazabal hasta **nuestro local social (10)**.